

## DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA, S.A. SOZIJETATEAREN KONTRATAZIORAKO BARNE-JARRAIBIDEAK

<b>A.</b>	<b>APLIKAGARRIA DEN KONTRATAZIO-ESPARRUA.....</b>	<b>[1]</b>
<b>B.</b>	<b>ARAUZE HARMONIZATUAREN MENDEKO EZ DIREN KONTRATUAK.....</b>	<b>[2]</b>
	<b>I. <u>Aplikagarri diren arau orokorrak.....</u></b>	<b>[2]</b>
	1. KONTRATAZIO-ORGANOA.....	[2]
	2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK.....	[3]
	3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK.....	[4]
	4. KONTRATUA PRESTATZEA.....	[5]
	5. KONTRATUA EGITEA.....	[6]
	6. KONTRATUA GAUZATZEA.....	[6]
	<b>II. <u>Plegua.....</u></b>	<b>[6]</b>
	<b>III. <u>Esleitzeko prozedurak.....</u></b>	<b>[9]</b>
	1. OBRA-KONTRATUAK.....	[9]
	2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUA...).	[14]
	<b>IV. <u>Errekurtsoak.....</u></b>	<b>[20]</b>
<b>C.</b>	<b>ARAUZE HARMONIZATUAREN MENDEKO DIREN KONTRATUAK.....</b>	<b>[20]</b>
	<b>I. <u>Aplikagarri diren arau orokorrak.....</u></b>	<b>[21]</b>
	1. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEN ARABERAKO ESPEZIALITATEAK.....	[21]
	2. KONTRATUA PRESTATZEA	[21]
	3. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.....	[22]
	<b>II. <u>Plegua.....</u></b>	<b>[22]</b>
	<b>III. <u>Esleitzeko prozedura.....</u></b>	<b>[22]</b>
	<b>IV. <u>Errekurtsoak.....</u></b>	<b>[24]</b>
	1. PRESTATZEA ETA ESLEITZEA.....	[24]
	2. ONDORIOAK ETA KONTRATUA AMAITZEA.....	[25]
	<b>V. <u>Ofizioz berrikustea.....</u></b>	<b>[25]</b>

<b>D.</b>	<b>KONTRATUGILEAREN PROFILA.....</b>	<b>[25]</b>
<b>I.</b>	<b>ERANSKINA.....</b>	<b>[27]</b>
<b>II.</b>	<b>ERANSKINA.....</b>	<b>[30]</b>
<b>III.</b>	<b>ERANSKINA.....</b>	<b>[31]</b>

## **DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA, S.A. SOZIETATEAREN KONTRATAZIORAKO BARNE-JARRAIBIDEAK**

### **A. APLIKAGARRIA DEN KONTRATAZIO-ESPARRUA**

DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA, S.A. (aurrerantzean MUSIKA HAMABOSTALDIA edo sozietatea, bereizi gabe) merkataritza-sozietate bat da, eta bertako kapital soziala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren jabetzakoa da.

Hauxe da sozietatearen xedea: *“1. Urtero Donostiako Musika Hamabostaldia egitea. 2. Hamabostaldiaren osagarri diren musika zabaltzeko bestelako adierazpen eta jarduerak sustatzea, bultzatzea eta egitea, hala nola, ikastaroak, topaketak, hitzaldiak, zikloak eta emanaldiak, betiere musika hobeto ezagutzera eta hobetzera bideratutakoak, musikaren alderdi kultural, tekniko, ekonomiko eta sozialari begiratuta.”*

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 3/2011 Legearen ondorioetarako (aurrerantzean SPKLTB edo Legea, bereizi gabe), MUSIKA HAMABOSTALDIA **“sektore publikoaren”** parte da (lege horren 3.1.d) artikuluan aurreikusten denaren arabera), eta Herri Administrazio bat ez bada ere, lege horretan (3.3. artikuluan) “botere esleitzailerik” gisa hartzeko aurreikusten diren ezaugarriak betetzen ditu. Horrenbestez, aplikatzekoak zaizkio SPKLTBan ondorio horretarako aurreikusten diren aginduak.

MUSIKA HAMABOSTALDIAK egindako **kontratuak pribatuak** dira, eta honako kategorien arabera sailkatuko dira:

1. **Legearen mendeko ez diren kontratuak**, legeria pribatuaren eta, hala badagokio, aplikagarri zaizkien gainerako arau berezien mendeko izango direnak. SPKLTBaren 4. artikuluan deskribatutako kontratuak dira (jarraibide hauekin batera doa aipatutako artikulua, I. eranskin gisa). **Horietan ez dira izango aplikagarri jarraibide hauek.**
2. **Legearen mendeko diren kontratuak, baina arautze harmonizatuaren izaerarik ez dutenak.** Kontratu guztiak izango dira kategoriatuak honetakoak, hurrengo kategoriakoak salbu. **Jarraibide hauetako B atalean** aurreikusitakoa izango da aplikagarri honelakoetan.
3. **Legearen mendeko diren kontratuak, arautze harmonizatuaren izaera dutenak. Jarraibide hauetako C atalean** aurreikusitakoa izango da aplikagarri honelakoetan. Honako kontratuak izango dira:
  - Balio zenbatetsia 5.000.000 eurokoa edo handiagoa duten obra-kontratuak<sup>1</sup>.
  - Balio zenbatetsia 200.000 eurokoa edo handiagoa duten hornidura-kontratuak<sup>1</sup>.

<sup>1</sup> Edo Europar Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen zenbatekoa, SPKLTBaren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

- SPKLTBaren II. eranskineko 1etik eta 16ra bitarteko kategorietan barne hartutako zerbitzu-kontratuak, balio zenbatetsia 200.000 eurokoa edo handiagoa dutenak<sup>1</sup>.

Aipatutako zenbateko horiek BEZa kanpo utzita izango dira.

Zenbatekoa edozein dela ere, inoiz ez dira arautze harmonizatuaren mendeko izango SPKLTBaren 13.2 artikuluan deskribatutakoak (jarraibide hauekin batera doaz II. Eranskin gisa), ezta SPKLTBaren II. eranskineko 17tik eta 27ra bitarteko kategorietan barne hartutako zerbitzu-kontratuak ere.

## **B. ARAUTZE HARMONIZATUAREN MENDEKO EZ DIREN KONTRATUAK**

Honako kontratuak izango dira:

- Balio zenbatetsia 5.000.000 eurotik beherakoa duten obra-kontratuak.
- Balio zenbatetsia 200.000 eurotik beherakoa duten hornidura-kontratuak.
- SPKLTBaren II. eranskineko 1etik eta 16ra bitarteko kategorietan barne hartutako zerbitzu-kontratuak, balio zenbatetsia 200.000 eurotik beherakoa badute.

Aipatutako zenbateko horiek BEZa kanpo utzita izango dira.

- SPKLTBaren II. eranskineko 17tik eta 27ra bitarteko kategorietan barne hartutako zerbitzu-kontratuak eta aipatutako 13.2 artikuluko kontratuak, beren zenbatekoa edozein dela ere.

## **I. Aplikagarri diren arau orokorrak**

### **1. KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratatzeko ahalmena MUSIKA HAMABOSTALDIAREN Estatutuetan xedatutakoaren eta aplikagarri zaizkion zuzenbide pribatuko arauen arabera gauzatuko da.

Honakoa izango da kontratazio-organoa:

1. Sozietatearen Zuzendari Gerentea, 200.000 euro arteko zenbatekoa duten kontratu artistikoetarako eta 60.000 euro arteko zenbatekoa duten gainerako kontratuetarako.
2. Sozietatearen Zuzendari Gerentea, Administrazio Kontseiluko lehendakariarekin edo lehendakariordearekin batera jardunez, 200.000 eta

300.000 euro arteko kontratu artistikoetarako eta 60.000 eta 200.000 euro arteko gainerako kontratueterako.

3. Sozietatearen Administrazio Kontseilua, edozein kontratu-motarako, edozein delarik ere horien izaera eta zenbatekoa.

Kasuan kasu, Kontratazio Organoak berariaz eman ahal izango dio egoki irizten duen pertsonari edo pertsoneri kontratuen inguruko jardun zehatzetarako ahalmena.

## **2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Honako baldintzak bete eta egiaztatzen dituzten kontratistek egin ahal izango dituzte kontratuak MUSIKA HAMABOSTALDIAREKIN.

### **2.1. Gaitasun-baldintzak**

Legearen 54. artikuluan aurreikusiak.

55. artikulua (erkidegokoak ez diren enpresei dagokiena) eta 56. artikulua (bateragarritasunaren inguruko baldintza bereziei dagokiena) izango dira aplikagarri.

### **2.2. Ahalmena**

57. artikuluan (pertsona juridikoen ahalmena), 58. artikuluan (erkidegoko enpresen ahalmena) eta 59. artikuluan (enpresaburuen batasunen ahalmena).

Legearen 72. artikuluan ezartzen den moduan egiaztatuko da ahalmena.

### **2.3. Kontratatzeko debekurik ez izatea**

Kontratatzeko debekuei buruzko 60.1. artikulua eta kontratatze debeku horiek ez dagozkiola frogatzeko moduei buruzko 73. artikulua aplikatuko dira.

### **2.4. Kaudimenaren gutxieneko baldintzak**

Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko gutxieneko baldintzak –kasuak kasu– Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Agirian ezarriko dira, eta bertan ezarritako moduan egiaztatuko dira.

Klausulen agiri horretan, kaudimena justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak ez ezik, kaudimen hori egiaztatzeko gutxienerako mugak ere identifikatuko dira.

62. artikulua (kaudimenaren eskakizuna), 63. artikulua (kaudimena kanpoko bitartekoekin integratzea) eta 64. artikulua (kaudimen-baldintzen zehaztapena) aplikatuko dira.

### **2.5. Sailkapena**

Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Agirian aurreikusten den kasuetan soilik eskatuko da administrazio-sailkapena.

## **3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK**

### **3.1. Kontratuaren xedea**

MUSIKA HAMABOSTALDIAK bere erakunde-xedeak betetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak direnean egingo ditu kontratuak. Zehatz-mehatz finkatuko dira proiektatutako kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, eta premia horiek asetzeko xedearen eta edukiaren egokitasuna. Edonola ere, prestatzeko dokumentazioan jasoaraziko da hori guztia.

Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da kontratuaren xedea.

### **3.2. Kontratuaren iraupena**

MUSIKA HAMABOSTALDIAK honako alderdi hauek hartuko ditu aintzat kontratuaren iraupena finkatzeko: prestazioen izaera, finantziarioaren ezaugarriak eta prestazioak aldi behin lehiaketara ateratzeko beharra. Ondorio horretarako, 23. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Egin daitezkeen luzapenak Klausula Ekonomiko eta Administrazioen agirian aurreikusiko dira espresuki.

Zuzeneko esleipenaren ondoriozko 50.000 eurotik beherako zenbatekoa duten obra-kontratuek eta 18.000 eurotik beherako zenbatekoa duten bestelako kontratuek (BEZa kanpo) urtebeteko iraupena izango dute gehienez, eta ezin izango dira luzatu.

### **3.3. Prezioa**

Kontratuaren prezioari, zenbatetsitako balioaren kalkulari eta lizitazioaren aurrekontua zehazteari buruzko 87. eta 88. artikuluen arauak aplikatuko dira, betiere Herri Administrazioa ez izatearen ondoriozko egokitzapenekin.

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian aurreikusten diren kasuetan soilik berraztertuko dira prezioak.

#### **4. KONTRATUA PRESTATZEA**

##### **4.1. Eskaera**

Eskaera egiteko, MUSIKA HAMABOSTALDIKO barneko langileek bete beharko dute jarraibide hauen III. eranskin gisa erantsi den formularioa. Formulario horretan jasoaraziko dira proiektatutako kontratuaren bidez estali nahi diren premien izaera eta hedadura, eta premia horiek asetzeko xedearen eta edukiaren egokitasuna.

##### **4.2. Agiriak**

Nahitaezkoa izango da Agiria prestatzea 50.000 eurotik gorako (BEZa kanpo) kontratu guztietan. Obra-kontratuaz bestelako kontratuetan ere Agiria prestatu ahal izango da, Kontratazio Organoak erabakitzen duenaren arabera, kontratuaren zenbatekoa 18.000 eurotik gorakoa (BEZa kanpo) denean betiere.

Zenbateko hori gainditzen duten kontratuetan, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agiriarekin batera Baldintza Teknikoen Agiria ere aurkeztu beharko da.

Obra-kontratuetan, halaber, dagokion Obra Proiektua prestatuko da, eta, hala badagokio, Baldintza Teknikoen Agiria ordezkatu ahal izango du.

SPKLTBaren 120. artikulua arabera, lan-kontratuetan subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa emango da, hala badagokio, Agirian bertan edo dokumentazio osagarrian.

200.000 euroko zenbatekoa edo hortik gorakoa (BEZ kanpo) duten obra-kontratuak lizitatzean, edo 60.000 eurotik gorakoko (BEZ kanpo) bestelako kontratuak lizitatzean, berraztertu egingo dira Agiri horiek, eta txosten juridikoaren mende egongo dira.

SPKLTBaren II. eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietan barne hartutako zerbitzu-kontratuak, 200.000 euroko zenbatekoa edo hortik gorakoa dutenak, SPKLTBaren 137.1. artikuluan aurreikusten denaren mende egongo dira.

## **5. KONTRATUA EGITEA**

Kontratua hobetuko da formalizatzen denean.

Kontratua idatziz formalizatuko da.

Bidezkoa izateagatik, kontratuaren zuzeneko esleipenera jotzen bada, kontratuaren formalizazioa dagokion aurrekontua jaulkitzera eta onarpen idatziaren komunikaziora mugatu ahal izango da.

Baldintza Ekonomiko eta Administrazioen Agiririk prestatzen ez bada, sinatutako kontratuak ezinbestean hartu beharko ditu barne SPKLTBaren 26. artikuluan jasotakoak.

Kontratuan ez dira, inola ere, barne hartuko Agirietan aurreikusten direnez bestelako eskubideak eta betebeharrak, betiere aurreikutzeko eskaintzaren ondoriozko zehaztapenekin eta esleipen-egintzaren doitasunekin.

## **6. KONTRATUA GAUZATZEA**

Kontratuaren ondorioei eta amaierari dagokienez, Agirietan aurreikusitakoa aplikatuko da (hala erabakitzen bada, Herri Administrazioen kontratazio-araudira jo ahal izango da), eta aurrekoaren ordezkotako gisa, zuzenbide zibilean aurreikusitakoa aplikatuko da, kontratuaren aldaketari dagokionez izan ezik, kasu horretan SPKLTBaren I Liburuko V. Tituluan (105., 106., 107. eta 108. artikuluetan) agindua aplikatuko baita.

## **II. Agiria**

Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Agiriak honako alderdi hauek zehaztu beharko ditu, prozedura negoziatuaren berezko berezitasunekin:

- Kontratuaren xedea, eta, hala badagokio, loteak.
- Erakunde kontratugilea eta Kontratazio Organoa.
- Kontratua esleitzeko prozedura.
- Kontratuko dokumentazioa.
- Kontratuaren iraupena, luzapenak zehaztuz, halakorik badago.



- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta, hala badagokio, kontratuaren balio zenbatetsia.
- Prezioa ordaintzeko araubidea.
- Publizitatea.
- Hala badagokio, lan-kontratuetakiko subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa (SPKLTBaren 120. artikulua arabera).
- Kontratista:

Ahalmena.

Gaitasun-baldintzak.

Kontratatzeko debekuak.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).

Kaudimen teknikoa edo profesionala (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).

- Proposamenak aurkeztea:

Aurkezteko modua.

Forma eta edukia (aurkeztu beharreko dokumentazioa).

Aurkezteko epea eta lekua.

- Ebaluazioa eta esleipena:

Esleitzeko eta balioesteko irizpideak.

Prozedura negoziatua denean, negoziatzeko alderdiak eta, hala badagokio, esleitzeko eta balioesteko irizpideak.

Onartutako proposamenak irekitzea.

Proposamenak ebaluatzea eta ikuspegi ekonomikotik eskaintza onuragarriena hautatzea.

Ikuspegi ekonomikotik proposamen onuragarriena aurkeztu duen eskaintzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa.

### Kontratua esleitzea eta jakinaraztea.

- Esleipendunak aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioa eta epea.
- Kontratua formalizatzea eta epea.
- Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
- Kontratua hartzea edo prestazioa entregatzea eta bermearen epea.
- Kontratua suntsiarazteko kausak.
- Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Horrez gain, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agiriak honako alderdi hauek ere zehaztu ahal izango ditu:

- Finantziazioa.
- Aldaerak edo hobekuntzak: onartzen diren edo ez diren adieraztea, betiere horretarako baldintzak, mugak eta modalitateak zehaztuz, eta kontratuaren zein alderdi alda daitezkeen ere bai.
- Prezioa berrikustea (aplikatzekoa den formula edo indize ofiziala adieraziz), SPKLTBaren 87. artikulua 3. atalean adierazten denaren arabera.
- Behin-behineko edo behin betiko bermeak.
- Sailkapena.
- Ebaluaziorako Batzordea.
- Kontratuaren arduraduna.
- Ahalmen- eta kaudimen-baldintzak egiaztatze dokumentazioa aztertze data.
- Kontratistari ezarritako konfidentzialtasun-betebeharraren norainokoa, denboran eta helburuetan.
- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak (SPKLTBaren 118. artikuluan aurreikusten den moduan, lege horren beraren 137.1 artikulua igorrita).
- Fiskalitatearen, ingurumen-babesaren, enpleguaren eta lan-baldintzen arloko betebeharre buruzko informazioa (SPKLTBaren 119. artikuluan aurreikusten den moduan, lege horren beraren 137.1 artikulua igorrita).
- Aseguruen inguruko eskakizunak.

- Kontratua aldatzeko aukeran, argi, zehatz eta ezin nahasizko moduan zehaztuko da zer egoeratan egin ahal izango den hori, hitzartu daitezkeen aldaketen garrantzia eta norainokoa, gehienera ere kontratuaren prezioaren zer ehunekori eragin diezaiokeen, eta orobat zehaztuko da horretarako jarraitu beharreko prozedura. Hori guztia SPKLTBan (106. artikulua) horri dagokionez bildutako erabakiak errespetatuz eta beteaz.
- Lagapena eta azpikontratazioa: kontratua lagatzeko baldintzak adieraztea eta, hala badagokio, kontratistak kontrata ditzakeen prestazioak edo horien ehunekoa identifikatzea.
- Kontratistaren erantzukizuna.
- Atzerapenen ondoriozko eta gauzatze akastunaren ondoriozko zigorrak.
- Ordenamendu juridikoaren aurkakoa ez den beste edozein itun, klausula eta baldintza.

### **III. Esleitzeko prozedurak**

SPKLTBaren 191. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, kontratu-moten eta zenbatekoen araberako esleitzeko prozedurak emango dira aditzera ondoren.

Edonola ere den, aipatzekoa da kontratua enpresaburu jakin bati baino ezin zaiola agindu zehazten duten arrazoi teknikoak edo artistikoak sortzen direnean, kontratuak prozedura negoziatu bidez esleitu ahal izango direla, SPKLTBaren 170. artikulua d) atalean xedatutakoari jarraiki.

Ondoren aditzera emango denaren kalterik gabe, Kontratazio Organoak lehiarako elkarrizketa-prozedurara jo ahal izango du, betiere 179. artikulutik 183. artikulura bitartean aurreikusten diren kasuetan eta bertan adierazten diren ondorioekin.

Era berean, kontratazioa arrazionalizatzeko sistemetara jo ahal izango du (esparru-akordioak, kontratazio-sistema dinamikoak eta kontratazio-zentralak). Hala eginez gero, 196. artikulutik 205. artikulura bitartean arautze harmonizatuaren mende dauden kontratueterako aurreikusten dena bete beharko da.

#### **1. OBRA-KONTRATUAK**

##### **1.1. Zenbatekoen araberako bereizketa**

Obra-kontratuari dagokionez, obraren zenbateko ekonomikoaren araberako hiru prozedura bereiziko dira. Honakoak:

- a) 49.999,99 eurora arteko obra-kontratua.
- b) 50.000 euro eta 999.999,99 euro bitarteko obra-kontratua.
- c) 1.000.000 euro eta 4.999.999,99 euro bitarteko obra-kontratua<sup>2</sup>.

Aipatutako zenbateko horiek BEZa kanpo utzita izango dira.

### 1.2. **49.999,99 eurora arteko zenbatekoa duten obra-kontratuak**

Mota honetako kontratuetan, oro har, **zuzeneko esleipenera** joko da. Bidezko aurrekontua eskatuko da, eta, MUSIKA HAMABOSTALDIK onartu ostean, dagokion kontratua sinatuko da. Nolanahi ere, nahikoa izan daiteke aurrekontu hori onartzen dela espresuki eta idatziz jakinaraztea.

Kontratua bete dela egiaztatu ondoren ordainduko da prezioa. Dena den, aurretik kontratistak faktura aurkeztu beharko du, eta faktura hori onartu egin beharko da.

Haatik, prozedura negoziatu ireki edo mugatura ere jo ahal izango da, eta kasu horretan hurrengo atalean xedatzen dena aplikatuko da.

### 1.3. **50.000 euro eta 999.999,99 euro bitarteko obra-kontratuak**

Mota honetako kontratuetan, prozedura **negoziatu, ireki edo mugatu bidez** esleituko da kontratua. Hautatutako prozedura zehatza jasoarazi beharko da Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Agirian.

#### 1.3.1. **PROZEDURA NEGOZIATUA**

Prozedura negoziatuaren aldeko hautua eginez gero, honako izapideak bete beharko dira:

- a) **Eskaera:** Kontratazioaren eskaera egiteko, MUSIKA HAMABOSTALDIKO barneko langileek bete beharko dute jarraibide hauen III. eranskin gisa erantsi den formularioa.
- b) **Eskaintzen eskaera:** Kontratuaren xedea betetzeko ahalmena duten hiru enpresari eskatuko zaizkie eskaintzak gutxienez. Edonola ere, posible da eskaintzarik ez eskatzea, lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratzen denean.

---

<sup>2</sup> Edo Europar Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen zenbatekoa, SPKLTBaren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

- c) **Agiriak:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agiri bat (jarraibide hauen B epigrafeko II atalean aurreikusten den edukiarekin) eta Baldintza Teknikoen Agiri bat, edo dagokion Obra Proiektua, prestatuko dira.

Dokumentu horiek berraztertu egingo dira eta txosten juridikoaren mende egongo dira, baldin eta kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa bada.

Agirian bertan edo dokumentazio osagarrian emango da lan-kontratuaren subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa SPKLTBaren 120. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

- d) **Publizitatea:** Kontratuaren balio zenbatetsia 200.000 eurotik gorakoa denean, kontratugilearen profilean eman beharko da argitara kontratuaren lizitazioa.

Kontratuaren esleipena kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Betiere atal honen g) letran aurreikusten denaren kalterik gabe.

- e) **Ebaluazioa:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen agirian zehaztuko dira enprekin negoziatu beharreko alderdi ekonomikoak eta teknikoak, eta baita, hala dagokionean, esleipenerako eta haztapenerako irizpideak ere.

Egindako negoziazioen ondoren, eta azkenik aurkeztu diren eskaintzak ikusirik, MUSIKA HAMABOSTALDiko langile teknikoek proposamen bat aurkeztuko diote Kontratazio Organoari, neurritik kanpokatzen edo anormaltzen hartu ez diren proposamenen zerrenda, eta alderdi ekonomikotik eskaintza onuragarrienaren identifikazioa sartuko dira proposamen horretan.

Idatziz jasoko dira, hala dagokionean, igorritako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, onartzeko edo baztertzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak.

200.000 eurotik gorako kontratuen kasuan, aipatutako proposamena txosten juridikoarekin batera aurkeztuko da.

- f) **Kontratuaren esleipena:** Kontratazio Organoak ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua, langile teknikoek proposamena ikusirik.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adostuko du, eta lizitatuak jakinaraziko zaio, eta, aldi berean, kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak langile teknikoek egindako proposamenari jarraituz esleitu ezean, arrazoitu egin beharko du erabaki hori.

- g) **Aplikagarri diren beste kasu batzuk:** prozedura negoziatua hautatu ahal izango da, edozein dela ere zenbatekoa, 170. eta 171. artikuluetako a), b) eta c) ataletan aurreikusitako kontratuetan.

Kasu horietan, kontratugilearen profilean bakarrik emango da argitara lizitazioaren iragarkia, 170. artikuluko a) eta b) ataletan eta 171. artikuluko a) atalean.

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian edo jarraibide hauetan bertan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, legearen 151. (1, 2 eta 3 atalak), 169., 176., 177. eta 178. artikuluetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa, baita, adierazitako artikuluko horiek igorrita, aplikatzekoak izan daitezkeen beste artikuluko batzuetan ezarritakoa ere. Edonola ere, Herri Administrazio bat ez izatearen ondorioz, beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira.

#### 1.3.2. **PROZEDURA IREKIA EDO MUGATUA**

50.000 eta 999.999,99 euro bitarteko obra-kontratuetan, prozedura irekia edo mugatua hautatuko balitz, hurrengo atalean adierazitakoa aplikatuko da, c) paragrafoan publizitateari buruz adierazten dena izan ezik. Azken kasu horretan, publizitatearen printzipioaren ondoriozko betebeharra bete dela ulertuko da lizitazioari dagokion iragarkia eta kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratzen denean.

Bestalde, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agiria, eta Baldintza Teknikoei dagokiona, edo Obra Proiektuari dagokiona, ez dira berrikusiko eta ez dute txosten juridikorik izango, baldin eta kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurokoa edo hortik berakoa bada.

#### 1.4. **1.000.000 euro eta 4.999.999,99 euro bitarteko obra-kontratuak**

Mota honetako kontratuetan, **prozedura ireki edo mugatu** bidez esleituko da kontratua. Hautatutako prozedura zehatza jasoarazi beharko da Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian.

**Prozedura irekiaren zein mugatuaren** aldeko hautua egiten bada, honako arauak hartu beharko dira aintzat:

- a) **Eskaera:** Eskaera egiteko, MUSIKA HAMABOSTALDIKO barneko langileek bete beharko dute jarraibide hauen III. eranskin gisa erantsitako den formularioa.
- b) **Eskaerak:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agiri bat (jarraibide hauen B epigrafeko II atalean aurreikusten den edukiarekin)

eta Baldintza Teknikoen Agiri bat, edo dagokion Obra Proiektua, prestatuko dira.

Agiri horiek berraztertu egingo dira eta txosten juridikoaren mende egongo dira.

SPKLTBaren 120. artikulua arabera, lan-kontratuetan subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa emango da, hala badagokio, Agirian bertan edo dokumentazio osagarrian.

- c) **Publizitatea:** Lizitazioa argitara eman beharko da, gutxienez, kontratugilearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, edo kontratugilearen profilean eta probintziako egunkari batean. Egin diren aukera zehatzak eman beharko dira aditzera Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian.

Kontratuaren esleipena kontratugilearen profilean argitaratuko da.

- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian zehaztuko da proposamenak aurkezteko epea. Alabaina, ez da inoiz hogeita sei (26) egunetik beherako epea izango. Haatik, Kontratazio Organoaren iritziz, epea murriztea justifikatuko duten egoera bereziak gertatzen direnean, laburragoa izan daiteke epea.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak sekretuak izango dira, eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian zehazten den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** Kontratazio Organoak zehaztuko ditu kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, baita horien haztapena ere. Iragarkian eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian adieraziko dira.

Kontratuaren xedearekin lotura zuzena duten irizpideak izan daitezke, hala nola, kalitatea, prezioa, zerbitzua ematearen ondoriozko ordainsariak berraztertze erabil daitezkeen formula, prestazioa gauzatzeko edo emateko epea, erabiltzearen kostua, ingurumen-ezaugarriak, gizarte-eskakizunak asetzearekin zerikusia duten ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezkotzearen eskuragarritasuna eta kostua, mantentze-lanak, laguntza teknikoa, salmenta-osteko zerbitzua, eta antzeko beste batzuk.

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian aintzat hartuko da aurkeztutako proposamenak baloratzeko txosten objektibo bat igortzeaz arduratuko den eta, orobat, proposatutako Kontratazio Organoari neurritik kanpokotzat edo anormaltzat hartu ez diren eta beheranzko ordenan sailkatu diren proposamenen zerrenda biltzen duen proposamena luzatzeaz –Klausula Ekonomiko eta Administratiboen

Agirian aurreikusitako proposamenen baloraziorako irizpideei jarraituz- eta alderdi ekonomikotik onuragarriena den eskaintza identifikatzeaz arduratuko den Batzordearen osaera eta haren ahalmenak.

200.000 eurotik goragoko kontratuen kasuan, txosten juridikoa aurkeztuko da aipatutako proposamenarekin batera, non eta aipatutako Batzordean ez den barne hartu aholkularitza juridikoa.

- g) **Kontratuaren esleipena:** Kontratazio Organoak ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua, betiere Klausula Ekonomiko eta Administrazioen agirian aurreikusitako balorazio-irizpide objektiboen arabera, eta Ebaluazio Batzordearen proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adostuko du, eta lizitatuazileari jakinaraziko zaio, eta, aldi berean, kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak kontratua ez badu Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenari jarraituz esleitzen, arrazoitu egin beharko du erabaki hori.

Klausula ekonomiko eta administrazioen agirian edo jarraibide hauetan bertan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, honako hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da:

- prozedura irekirako eta prozedura mugaturako, 151. artikuluan aurreikusitakoa (1, 2 eta 3 atalak).
- prozedura irekirako, 157., 158., 160. (ez da inoiz aplikatzekoa izango adituen batzordearen edo organismo tekniko espezializatuaren arloan aurreikusten dena) eta 161. artikulua; prozedura mugaturako, 162., 163., 165., 166., 167., 168. artikuluetan eta, adierazitako artikuluhoriek igorrita, aplikatzekoak izan daitezkeen beste artikuluhoriek batzuetan ezarritakoa ere. Bi kasu horietan, Herri Administrazio ez izatearen ondoriozko egokitzapenekin.

## **2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTELAKOAK)**

### **2.1. Zenbatekoen arabera bereizketa**

Kontratu horiei dagokienez (hornidura, zerbitzuak eta bestelakoak), hiru prozedura hartuko dira kontuan, zenbatekoaren arabera. Honakoak:

- a) 17.999,99 eurora arteko kontratua.



- b) 18.000 euro eta 99.999,99 euro bitarteko kontratua.
- c) 100.000 euro eta 199.999,99 euro<sup>3</sup> bitarteko hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, eta gainerako kontratuak, zenbatekoari dagokionez mugarik gabe.

Aipatutako zenbateko horiek BEZa kanpo utzita izango dira.

## 2.2. **17.999,99 eurora bitarteko kontratuak**

Mota honetako kontratuetan, oro har, **zuzeneko esleipenera** joko da. Bidezko aurrekontua eskatuko da, eta, MUSIKA HAMABOSTALDIK onartu ostean, dagokion kontratua sinatuko da. Nolanahi ere, nahikoa izan daiteke aurrekontu hori onartzen dela espresuki eta idatziz jakinaraztea.

Kontratua bete dela egiaztatu ondoren ordainduko da prezioa. Dena den, aurretik kontratistak faktura aurkeztu beharko du, eta faktura hori onartu egin beharko da.

Haatik, prozedura negoziatu ireki edo mugatura ere jo ahal izango da, eta kasu horretan hurrengo atalean xedatzen dena aplikatuko da.

## 2.3. **18.000 euro eta 99.999,99 euro bitarteko kontratuak**

Mota honetako kontratuetan, **prozedura negoziatu, ireki edo mugatu** bidez esleituko da kontratua. Hautatutako prozedura zehatza jasoarazi beharko da Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian. Halakorik ezean, erabakia berariaz hartu beharko du Kontratazio Organoak.

### 2.3.1. **PROZEDURA NEGOZIATUA**

Prozedura negoziatuaren aldeko hautua eginez gero, honako izapideak bete beharko dira:

- a) **Eskaera:** Kontratazioaren eskaera egiteko, MUSIKA HAMABOSTALDIKO barneko langileek bete beharko dute jarraibide hauen III. eranskin gisa erantsi den formularioa.
- b) **Eskaintzen eskaera:** Kontratuaren xedea betetzeko ahalmena duten hiru enpresari, gutxienez, eskatuko zaizkie eskaintzak. Edonola ere, posible da eskaintzarik ez eskatzea, lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratzen denean.

---

<sup>3</sup> Edo Europar Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen zenbatekoa, SPKLTBaren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

- c) **Agiriak:** Zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agiri bat (jarraibide hauen B epigrafeko II atalean aurreikusten den edukiarekin) eta Baldintza Teknikoen Agiri bat, edo Baldintza Teknikoen Agiri bat, prestatuko dira.

Dokumentu horiek berraztertu egingo dira eta txosten juridikoaren mende egongo dira, baldin eta kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa bada.

Lan-kontratuetakako subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa emango da, hala badagokio, Agirian bertan edo dokumentazio osagarrian, SPKLTBaren 120. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean.

50.000 euroko edo gutxiagoko kontratuen kasuan borondatezkoa izango da Agiriak prestatzea.

- d) **Publizitatea:** Kontratuaren balio zenbatetsia 60.000 eurotik gorakoa denean, kontratugilearen profilean argitaratu beharko da kontratuaren lizitazioa.

Kontratuaren esleipena kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Betiere atal honen g) letran aurreikusten denaren kalterik gabe.

- e) **Ebaluazioa:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian zehaztuko dira enprekin negoziatu beharreko alderdi ekonomikoak eta teknikoak, eta baita, hala dagokionean, esleipenerako eta haztapenerako irizpideak ere.

Egindako negoziazioen ondoren, eta azkenik aurkeztu diren eskaintzak ikusirik, MUSIKA HAMABOSTALDIko langile teknikoek proposamen bat aurkeztuko diote Kontratazio Organoari; neurritik kanpokotzat edo anormaltzat hartu ez diren proposamenen zerrenda eta alderdi ekonomikotik eskaintza onuragarrienaren identifikazioa sartuko dira proposamen horretan.

Idatziz jasoko dira, hala dagokionean, igorritako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, onartzeko edo baztertzeko arrazoiak eta egindako negoziazioak.

60.000 eurotik gorako kontratuen kasuan, aipatutako proposamena txosten juridikoarekin batera aurkeztuko da.

- f) **Kontratuaren esleipena:** Kontratazio Organoak ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua, langile teknikoek proposamena ikusirik.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adostuko du, eta lizitatzailari jakinaraziko zaio, eta, aldi berean, kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak langile teknikoek egindako proposamenari jarraituz esleitu ezean, arrazoitu egin beharko du erabaki hori.

- g) **Aplikagarri diren beste kasu batzuk:** prozedura negoziatua hautatu ahal izango da, edozein dela ere zenbatekoa, 170. eta 173. artikuluetako a), b) eta c) eta e) ataletan, 174. artikuluko a), b), c) eta d) ataletan eta 175. artikuluan aurreikusitako kontratuetan.

Kasu horietan, kontratugilearen profilean bakarrik emango da argitara lizitazioaren iragarkia, 170. artikuluko a) eta b) ataletan, 174. artikuluko a) atalean eta 175. artikuluan (zenbatekoa dela-eta prozedura negoziatura jotzen denean eta zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa denean) adierazten diren kasuetan.

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian edo jarraibide hauetan bertan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, legearen 151. (1., 2. eta 3. atalak) 169., 176., 177. 178. artikuluetan eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste artikuluko batzuetan ezarritakoa ere. Edonola ere, Herri Administrazio bat ez izatearen ondorioz, beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira.

### 2.3.2. PROZEDURA IREKIA EDO MUGATUA

18.000 eta 99.999,99 euro bitarteko kontratu mota hauetan (hornidura, zerbitzuak eta bestelakoak), prozedura irekia edo mugatua hautatuko balitz, hurrengo atalean adierazitakoa aplikatuko da, c) paragrafoan publizitateari buruz adierazten dena izan ezik. Azken kasu horretan, publizitatearen printzipioaren ondoriozko betebeharra bete dela ulertuko da lizitazioari dagokion iragarkia eta kontratuaren esleipena kontratatzailearen profilean argitaratzen denean.

Bestalde, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agiria, eta Baldintza Teknikoei dagokiona, edo Obra Proiektuari dagokiona, ez dira berrikusiko eta ez dute txosten juridikorik izango, baldin eta kontratuaren zenbateko 60.000 eurokoa edo hortik berakoa bada.

### 2.4. 100.000 euro eta 199.999,99 euro bitarteko kontratuak

Mota honetako kontratuetan, **prozedura ireki edo mugatu** bidez esleituko da kontratua. Hautatutako prozedura zehatza jasoarazi beharko da Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian.

Prozedura irekiaren zein mugatuaren aldeko hautua egiten bada, honako arauak hartu beharko dira aintzat:

- a) **Eskaera:** Eskaera egiteko, MUSIKA HAMABOSTALDIKO barneko langileek bete beharko dute jarraibide hauen III. eranskin gisa erantsi den formularioa.
- b) **Agiriak:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agiri bat (jarraibide hauen B epigrafeko II atalean aurreikusten den edukiarekin) eta Baldintza Teknikoen Agiri bat, edo dagokion Obra Proiektua, prestatuko dira.

Agiri horiek berraztertu egingo dira eta txosten juridikoaren mende egongo dira.

SPKLTBaren 120. artikulua araberan, lan-kontratuaren subrogatzeko baldintzei buruzko informazioa emango da, hala badagokio, Agirian bertan edo dokumentazio osagarrian.

- c) **Publizitatea:** Lizitazioa argitara eman beharko da, gutxienez, kontratugilearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, edo kontratugilearen profilean eta probintziako egunkari batean. Egin diren aukera zehatzak eman beharko dira aditzera Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian.

Kontratuaren esleipena kontratugilearen profilean argitaratuko da.

- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian zehaztuko da proposamenak aurkezteko epea. Alabaina, ez da inoiz hamabost (15) egun baino gutxiagoko epea izango. Haatik, Kontratazio Organoaren iritziz, epea murriztea justifikatuko duten egoera bereziak gertatzen direnean, laburragoa izan daiteke epea.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak sekretuak izango dira, eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian zehazten den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** Kontratazio Organoak zehaztuko ditu kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, baita horien haztapena ere. Iragarkian eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agirian adieraziko dira.

Kontratuaren xedearekin lotura zuzena duten irizpideak izan daitezke, hala nola, kalitatea, prezioa, zerbitzua ematearen ondoriozko

ordainsariak berraztertze erabil daitezkeen formula, prestazioa gauzatzeko edo emateko epea, erabiltzearen kostua, ingurumen-ezaugarriak, gizarte-eskakizunak asetzearekin zerikusia duten ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezkotzearen eskuragarritasuna eta kostua, mantentze-lanak, laguntza teknikoa, salmenta-osteko zerbitzua, eta antzeko beste batzuk.

Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Agirian aintzat hartuko da aurkeztutako proposamenak baloratzeko txosten objektibo bat igortzeaz arduratuko den eta, orobat, proposatutako Kontratazio Organoari neurritik kanpokotzat edo anormaltzat hartu ez diren eta beheranzko ordenan sailkatu diren proposamenen zerrenda biltzen duen proposamena luzatzeaz –Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Agirian aurreikusitako proposamenen balorazio irizpideei jarraituz– eta alderdi ekonomikotik onuragarriena den eskaintza identifikatzeaz arduratuko den Batzordearen osatura eta haren ahalmenak.

60.000 eurotik goragoko kontratuen kasuan, txosten juridikoa aurkeztuko da aipatutako proposamenarekin batera, non eta aipatutako Batzordean ez den barne hartu aholkularitza juridikoa.

- g) **Kontratuaren esleipena:** Kontratazio Organoak ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua, betiere Klausula Ekonomiko eta Administrazioen agirian aurreikusitako balorazio-irizpide objektiboaren arabera, eta Ebaluazio Batzordearen proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak kontratuaren esleipena adostuko du, eta lizitatuzaileari jakinaraziko zaio, eta, aldi berean, kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzordeak ez badu kontratua egindako proposamenari jarraituz esleitzen, arrazoitu egin beharko du erabaki hori.

Klausula ekonomiko eta administrazioen agirian edo jarraibide hauetan bertan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, honako hauetan aurreikusitakoa aplikatuko da:

- prozedura irekirako eta prozedura mugaturako, 151. artikuluan aurreikusitakoa (1, 2 eta 3 atalak).
- prozedura irekirako, 157., 158., 160. (ez da inoiz aplikatzekoa izango adituen batzordearen edo organismo tekniko espezializatuaren arloan aurreikusten dena) eta 161. artikulua; prozedura mugaturako, 162., 163., 165., 166., 167., 168. artikuluetan eta, adierazitako artikuluhoriek igorrita,

aplikatzekoak izan daitezkeen beste artikuluko batzuetan ezarritakoa ere. Bi kasu horietan, Herri Administrazio ez izatearen ondoriozko egokitzapenekin.

#### **IV. Errekurtsoak**

Kontratu hauek prestatu, esleitu, bete edo amaitzearen inguruko edo kontratuen ondorioen inguruko edozein gairen aurrean, **jurisdikzio zibilari** soilik jarri ahal izango zaizkio errekurtsoak.

SPKLTBaren II. eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietan barne hartuta dauden eta 200.000 euroko zenbatekoa edo zenbateko handiagoa duten zerbitzu-kontratuen prestaketari eta esleipenari dagozkion kasuetan, jarraibide hauetako C ataleko IV. epigrafean arautze harmonizatuaren mendeko kontratuentzat ezarritakoaren arabera jardungo da.

Horrez gain, kontratuen ondorioen inguruan edo kontratuak betetzearen eta amaitzearen inguruan sor daitezkeen desberdintasunak ebazteko, **arbitrajera** jo ahal izango da, abenduaren 23ko 60/2003 Legearen xedapenen arabera. Edonola ere, Klausula Ekonomiko eta Administratiboan Agirian jaso beharko da arbitrajera jotzeko aukera hori, edo, gisa horretako agiririk ez badago, beste edozein kontratu-dokumentutan jaso beharko da.

#### **C. ARAUTZE HARMONIZATUAREN MENDEKO DIREN KONTRATUAK**

Honako kontratuak izango dira:

- 5.000.000 euroko<sup>4</sup> edo hortik gorako obra-kontratuak.
- Balio zenbatetsia 200.000 eurokoa edo hortik gorakoa duten hornidura-kontratuak<sup>4</sup>.
- SPKLTBaren II. eranskineko 1etik eta 16ra bitarteko kategorietan barne hartutako zerbitzu-kontratuak, balio zenbatetsia 200.000 eurokoa edo handiagoa dutenak.

Aipatutako zenbateko horiek BEZa kanpo utzita izango dira.

Hori guztia 13.2. artikuluko kontratuen salbuespenarekin, ez baitira arautze harmonizatuaren mendeko izango, horien balio zenbatetsia edozein izanik ere.

---

<sup>4</sup> Edo Europar Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen zenbatekoa, SPKLTBaren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

## **I. Aplikagarri diren arau orokorrak**

Arautze harmonizatuaren mende dauden kontratuei jarraibide hauen B atalean, I. epigrafean, arautze harmonizatuaren mende ez dauden kontratueterako aurreikusten dena aplikatuko zaie. Honako espezialitate hauekin:

### **1. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEN ARABERAKO ESPEZIALITATEAK**

#### **1.1. Gaitasun-baldintzei dagozkien espezialitateak**

Legearen 54. artikuluan xedatutakoaz gain, 55. artikulua ere izango da aplikatzekoa (alde batera utziko da Merkataritzako Munduko Erakundearen kontratazio publikoari buruzko akordioa sinatu duten estatueterako enpresekiko elkarrekikotasunari buruzko txostena).

#### **1.2. Gutxieneko kaudimen-baldintzei dagozkien espezialitateak**

Jarraibide hauetako B.I epigrafeko 2.4 atalean xedatutakoaz gain, 74. artikulutik 79. artikulura bitarteko artikuluetan kaudimena egiaztatze moduei buruz xedatutakoa aplikatuko da.

#### **1.3. Kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketako arauak betetzea**

80. eta 81. artikulua aplikatuko dira kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketako arauak betetzen direla egiaztatzeari dagokionez.

Ondorio horretarako aurreikuspenak Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Agirian ezarriko dira.

### **2. KONTRATUA PRESTATZEA**

Baldintza teknikoak definitzeko eta ezartzeko, legearen 117. artikuluan finkatutako arauak aplikatuko dira.

Honako artikulua hauetan xedatzen dena ere izango da aplikatzekoa: 118. artikuluan (kontrata gauzatzeko baldintza bereziak), 119. artikuluan (fiskalitatearen, ingurumen-babesaren, enpleguaren eta lan-baldintzen arloko betebeharrak buruzko informazioa) eta 120. artikuluan (lan-kontratueterako subrogazio-baldintzei buruzko informazioa).

Atzeratu ezin den premiaren bat asetzeko kontrata egitea beharrezkoa bada, edo interes publikoko arrazoiengatik esleipena bizkortu behar bada, Kontratazio Organoak presazkotzat jo ditzake izapideak. Hori prestatzeko dokumentazioan

behar bezala arrazoitu beharko du. Hala egiten bada, epeak murrizteari buruzko legearen 112.2.b) artikuluan aurreikusten dena aplikatuko da.

Nolanahi ere, klausula ekonomiko eta administratiboen agiria eta baldintza teknikoen agiria berraztertu beharko dira, eta txosten juridikoaren mende egongo dira.

### **3. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA**

Kontratua formalizazioarekin burutuko da, eta idatziz formalizatuko da.

## **II. Agiria**

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Agiriak honako alderdi hauek zehaztu ahal izango ditu, arautze harmonizatuaren mende ez dauden kontratueterako jarraibide hauen II. epigrafeko B atalean adierazitakoaz gain:

- Kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketako arauak betetzen direla egiaztatzea (SPKLTBaren 80. eta 81. artikuluek xedatzen duten moduan).
- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak eta ez betetzearen ondorioak (SPKLTBaren 118. artikuluan aurreikusten den moduan).
- Fiskalitatearen, ingurumen-babesaren, enpleguaren eta lan-baldintzen arloko betebeharreari buruzko informazioa (SPKLTBaren 119. artikuluan aurreikusten den moduan).

## **III. Esleitzeko prozedura**

Arautze harmonizatuaren mende dauden kontratuak SPKLTBaren 190. artikuluan ezarritakoaren arabera esleituko dira, hau da, Herri Administrazioen kontratueterako aurreikusten den bezalaxe, betiere honako egokitzapen hauekin:

- a) Ez da aplikatuko 150. artikulua 2. ataleko bigarren paragrafoan ezarritakoa, irizpide subjektiboak baloratzeko adituen batzordearen esku-hartzeari dagokionez.
- b) Ez da aplikatuko 152. artikulua 1. eta 2. ataletan ezarritakoa, eskaintzen izaera anormaltzat edo proportzioz kanpokotzat baloratzeko irizpideei dagokienez.



- c) Ez da aplikatuko 156. artikuluan ezarritakoa, kontratuak formalizatzeari dagokionez, artikuluko horren beraren 3. atalean ezarritako epearen eta 5. atalean aurreikusitakoaren kalterik gabe.
- d) Ez da aplikatuko 160. artikuluan ezarritakoa, proposamenen azterketari eta esleipen-proposamenari dagokienez.
- e) Ez da aplikatuko 172. artikuluan ezarritakoa, zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozedura negoziatura jo ahal izateko kasuei dagokienez.

Presak dela eta, legeak ezartzen dituen gutxieneko epeak ezin bete direnean, epeak murrizteari buruzko 112.2.b) artikuluan aurreikusten dena aplikatuko da.

Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Agirian aintzat hartuko da aurkeztutako proposamenak baloratzeko txosten objektibo bat igortzeaz arduratuko den eta, orobat, proposatutako Kontratazio Organoari neurritik kanpokotzat edo anormaltzat hartu ez diren eta beheranzko ordenan sailkatu diren proposamenen zerrenda biltzen duen proposamena luzatzeaz –Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Agirian aurreikusitako proposamenen balorazioarako irizpideei jarraituz– eta alderdi ekonomikotik onuragarriena den eskaintza identifikatzeaz arduratuko den Batzordearen osara eta haren ahalmenak.

Proposamen hori txosten juridikoarekin batera aurkeztuko da, non eta aipatutako Batzordean ez den barne hartu aholkularitza juridikoa.

Edonola ere, lizitatuak igortzen zaien esleipenaren jakinarazpenean bildu beharko da, baztertutako lizitatuak edo arbuiautako hautagaiari, SPKLTBaren 40. artikuluan arabera, esleipen-erabakiaren kontra helegite oinarriak jartzek aukera emango dion informazioa. Zehazki, jakinarazpenak honako alderdi hauek azalduko ditu:

- a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, horien hautagaitza atzera botatzeko arrazoiak azalpen laburtua.
- b) Esleipen-prozeduratik baztertutako lizitatuak dagokionez, horien eskaintza ez onartzeko arrazoiak, modu laburtuan.
- c) Edonola ere, esleipendunaren izena, eta onartutako eskaintza guztien artetik esleipendunaren zer ezaugarri eta abantaila izan diren erabakigarri haren eskaintza lehentasunez hautatzeko.

Esleipenaren arrazoiari aplikatu ahal izango zaio 153. artikuluan aipatzen den konfidentzialtasun-salbuespena.

Edonola ere, jakinarazpenean zein kontratugilearen profilean azalduko da zer epean formalizatu beharko den kontratua, 156.3. artikuluan arabera.

Kontratuaren lizitazioa eta formalizazioa argitara eman beharko da, gutxienez:

- a) Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, eta legearen 334. artikuluan aipatzen den kontratazio-plataforman edo MUSIKA HAMABOSTALDIARI dagokion Herri Administrazioak kudeatzen duen sistema baliokidean.
- b) Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, lizitazioaren iragarkiak, esleipena eta kontratuaren formalizazioa kontratugilearen profilean eman beharko dira argitaratu.

#### **IV. Errekurtsoak**

##### **1. PRESTATZEA ETA ESLEITZEA**

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, **kontratazioaren inguruko errekurtso bereziaren** mendeko izan beharko dute ondorengoak:

- a) lizitazioaren iragarkiak, Agiriak eta kontratazioa arautu behar dituzten baldintzak ezartzen dituzten kontratuzko agiriak.
- b) esleipen-prozeduran hartutako izapideetako egintzek, betiere azken horiek esleipenaren gainean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedurarekin jarraitzeko ezintasuna zehazten badute, edo interes edo eskubide legitimoei kalte edo babesgabezia konponezina sortzen badiete.
- c) esleipeneko akordioetan.

Errekurtsoa erabakitzeko eskumena, SPKLTBaren 41. artikuluko 5. atalean aurreikusitakoaren arabera eskumena duten organoen artean helegileak hautatutakoari egokituko zaio.

Errekurtsoa jartzeko idatziaren aurkezpena MUSIKA HAMABOSTALDIAREN Kontratazio Organoaren erregistroan egin beharko da, nahitaez, edo errekurtsoa erabakitzeko hautatutako organo eskumendunean.

Kontratazioaren inguruko errekurtso berezia SPKLTBaren 40. artikuluan eta ondorengoetan aurreikusitakoaren arabera bideratuko da.

Behin behineko neurrien eskaerari dagokionez, SPKLTBaren 43. artikuluan ezartzen denaren mende egongo da.

Errekurtsoaren erabakiaren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** soilik jarri ahal izango da, betiere Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Deuseztapen gaiak direla eta errekurtoa jartzeari dagokionez, SPKLTBaren 39. artikulua ezartzen denaren mende egongo da.

SPKLTBaren II. eranskinen 17tik eta 27ra bitarteko kategorietan barne hartutako zerbitzu-kontratuak, edozein dela ere horien zenbatekoa, ez badaude ere arautze harmonizatuaren mende, horien zenbatekoa 200.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada, kontratazioaren, behin behineko neurrien eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren, eta deuseztapen gaiaren inguruko errekurto bereziaren xede izango dira, atal honetan aurreikusitakoaren arabera.

## **2. ONDORIOAK ETA KONTRATUA AMAITZEA**

Kontratu hauek betetzearen edo amaitzearen inguruko eta kontratu horien ondorioen inguruko edozein gairen aurrean, **jurisdikzio zibilar** soilik jarri ahal izango zaio errekurtoa.

## **V. Ofizioz berrikustea**

Arutze harmonizatuaren mende dauden kontratuak prestatzeko egintzak eta esleitzeko egintzak administrazioaren kabuz berraztertuko dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VII. Tituluaren Lehen Kapituluan ezarritakoaren arabera.

Egintza horiek deusez edo kaltegarritzat jo ahal izango ditu MUSIKA HAMABOSTALDIARI atxikitako sailaren, organoaren, erakundearen edo organismoaren titularrak, edo haren babesa dagokionak, berrikusketaren eskatzaileak MUSIKA HAMABOSTALDIA lotuta dagoen administrazioen artean hautatzen duen administrazioaren titularrak.

Hori guztia SPKLTBaren 34. artikulua ezartzen denaren mende egongo da.

## **D. KONTRATUGILEAREN PROFILA**

MUSIKA HAMABOSTALDIAK internet bidez hedatuko du bere kontratugile-profila. Horrela, kontratu-jardueraren inguruko gardentasuna bermatuko du, eta kontratu-jarduerari buruzko informazioa guztiengana irits daiteke.

Baldintzen agirietan eta lizitazio-iragarkietan zehaztuko da, besteak beste, kontratugilearen profileraren sartzeko modua.

Kontratugilearen profila eusten duen sistema informatikoa gailu egokia izan behar du bertan gaineratutako informazioa hedatzen noiz hasiko den zinez egiaztatzeko.

MUSIKA HAMABOSTALDIAREN kontratugilearen profilean honako datu eta informazioak emango dira argitara:

- a) Kontrataziorako barne-jarraibide hauek.
- b) Kontratuen lizitazio-iragarkiak, publizitaterik gabeko kontratu txikiak eta negoziatuak izan ezik.
- c) Kontratuen esleipena, kontratu txikiak izan ezik.
- d) Arautze harmonizatuaren mende dauden kontratuen formalizazioa.

Horrez gain, kontratugilearen profilean MUSIKA HAMABOSTALDIAREN kontratu-jarduerari buruzko edozein datu eta informazio sartu ahal izango da, honakoak, besteak beste: Legearen 141. artikuluan aurreikusten diren informazio-iragarkiak, irekita edo argibidean dauden lizitazioak, lizitazio horien dokumentazioa, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak, bertan behera geratutako prozedurak, kontratazio-organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen guneak eta komunikazio-bideak eta abar.

**4. artikulua. Kanpoan utzitako negozioak eta kontratuak**

1. Lege honen esparruaz kanpo utzi dira honako negozio eta erlazio juridiko hauek:

a) Funtzionario publikoen zerbitzu-harremanak eta lan-legerian araututako kontratuak.

b) Zerbitzu publikoren bat ematearen ondoriozko harreman juridikoak, baldin eta zerbitzu hori erabiltzeko aplikazio orokorreko tarifa, tasa edo prezio publikoa ordaindu behar bada.

c) Estatuko Administrazio Orokorrak honako erakunde hauekin egiten dituen elkarlanerako hitzarmenak, eta organismo eta entitate hauek elkarren artean egiten dituzten elkarlanerako hitzarmenak —beren izaeragatik lege honen mendeko kontratutzat jotzen direnak izan ezik—: Gizarte Segurantzaren zerbitzu komunak eta entitate kudeatzaileak, unibertsitate publikoak, autonomia-erkidegoak, tokiko entitateak, organismo autonomoak eta gainerako entitate publikoak.

d) Hitzarmenak arautzen dituzten berariazko arauen indarrez, administrazioak zuzenbide pribatuaren mende dauden pertsona juridikoekin edo fisikoekin egiten dituen hitzarmenak, betiere hitzarmenaren xedea ez badago lege honetan edo administrazio-arau berezietan arautako kontratuen xedeen artean.

e) Europako Erkidegoaren Eratze Itunaren 346. artikuluaaren esparruan barne hartzen diren hitzarmenak, defentsaren sektorean erabakitzen direnak.

f) Estatuak beste estatu batzuekin edo nazioarteko zuzenbide publikoko entitateekin egiten dituen hitzarmenak.

g) Herri Administrazioen mendeko zuzenbide publikoko organismoen zuzeneko jardueri dagozkien hornidura-kontratuak (organismo horiek merkataritzako, industriako, finantzako edo antzeko beste arlo batzuetako jarduerak garatuko dituzte), baldin eta kontratu horien mende dauden ondasunak (aldaketekin edo aldatu gabe) ondare-trafiko juridikora itzultzeko asmoz eskuratu badira haien xede bereizgarrien arabera, betiere organismo horiek legeak esleitzen dizkien berariazko eskumenen arabera dihardutenean.

h) Europako Erkidegoaren Eratze Itunaren arabera, Europar Batasuneko kide ez den herrialderen batekin edo batzuekin egindako nazioarteko akordioen ondoriozko kontratuak eta hitzarmenak, betiere obraren bat batera egiteari edo ustiatzeari zuzendutako obrei edo hornidurei dagozkienak edo proiekturen bat batera egiteko edo ustiatzeko zerbitzu-kontratuei dagozkienak.

i) Armada kokatzearekin zerikusia duten nazioarteko akordioaren indarrez egindako kontratuak eta hitzarmenak.

j) Nazioarteko erakunde baten berriazko prozedura baten indarrez esleitutako hitzarmenak eta kontratuak.

k) Arbitrajeko eta adiskidetzeko zerbitzuei dagozkien kontratuak.

l) Baloreak edo beste finantza-tresna batzuk jaulkitzearekin, erostearekin, saltzearekin eta eskualdatzearekin zerikusia duten finantza-zerbitzuen kontratuak, zehazki honakoak: estatuaren finantza-kudeaketako eragiketak, sektore publikoko erakundeek, organismoek eta entitateek funtsak edo kapitala lortzeko eragiketak, Espainiako Bankuak emandako zerbitzuak eta diruzaintzako eragiketak.

m) Sektore publikoko erakunde, organismo edo entitate bati ondasunak edo eskubideak emateko edo zerbitzuren bat emateko konpromisoa ezartzen dion kontratua. Edonola ere, ondasunak eskuratzen dituenak edo zerbitzuen hartzaileak (baldin eta lege honen mende dagoen sektore publikoko entitatearen bat bada) kontratua egiteko aginduetara moldatu beharko du.

n) Entitate bati zerbitzu jakin bat egitea agintzen dioten negozio juridikoak, betiere entitate horrek berezko bitarteko izaera eta zerbitzu tekniko izaera badu, 24.6. artikuluan adierazitakoaren arabera. Hala ere, lege honen mende egongo dira berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko gisa har daitezkeen entitateek enkarguaren ondoriozko zerbitzuak gauzatzeko egin behar dituzten kontratuak. Horretarako, egiten dituen entitatearen eta zenbatekoen arabera bidezkoa izan daitekeena hartuko da aintzat. Edonola ere, obra, zerbitzu edo horniduren arloko kontratuak direnean, eta horien zenbatekoak Aurretiazko Titulu honen II. Kapitularen 2. atalean ezarritako atalaseak gainditzen dituztenean, zuzenbide pribatuko entitateek 137.1 eta 190. artikuluetan ezarritako arauak izango dituzte kontuan, kontratu horiek prestatzeko eta esleitzeko.

o) Jabari publikoko ondasunen gaineko baimenak eta emakidak eta 7. artikuluan definitutakoaz bestelako ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak, beren berriazko legeriaren arabera arautuko direnak, lege honen aginduak aplikatzekoak izango direla berriaz aditzera ematen den kasuetan izan ezik.

p) Ondasun higiezin, balio negoziagarrien eta jabetza ukiezin gaineko salerosketako, dohaintzako, trukeko, errentamenduko eta gainerako antzeko negozio juridikoetako kontratuak, betiere ordenagailuko programei ez dagozkienean eta hornidura- edo zerbitzu-kontratu gisa kalifikatu behar direnean izan ezik. Izan ere, kontratu pribatuko izaera izango dute beti, eta ondare-legeriari jarraituz arautuko dira. Kontratu hauetan ezin izango dira sartu Aurretiazko Tituluaren II. Kapitulu 1. atalean arautzen diren kontratu tipikoen berezko prestazioak, baldin eta horien balio zenbatetsia negozioaren guztizko zenbatekoaren 100eko 50etik gorakoa bada, edo ondare-kontratuaren berezko prestazioarekin lotespen-erlaziorik ez badute eta osagarriak ez badira, 25. artikuluan aurreikusten den moduan. Bi kasu horietan, prestazio horien kontratazio independentea egin beharko da, lege honetan ezartzen denaren arabera.

q) Estatuko ikerketako organismo publikoek eta autonomia-erkidegoetako antzeko organismoek egindako zerbitzu- eta hornidura-kontratuak, baldin eta ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuak gauzatzeko beharrezko prestazioak edo

produktuak ematea edo zerbitzu teknikoak gauzatzea bada horien xedea. Edonola ere, horien ondoriozko emaitzak aurkezteak eta lortzeak lotuta egon beharko du trafiko juridikora txerta daitezkeen erretornu zientifikoekin, teknologikoekin edo industrialekin. Gainera, horiek gauzatzeko esleipena lehia-prozesuen bitartez agindu beharko zaie organismoaren ikerketa-taldeei.

r) Kontratazio-organoak erabat ordaindutako ikerketa- eta garapen-kontratuak, baldin eta organo horrek esleitutako enpresekin merkatuan eskura daudenak baino irtenbide berritzaileagoak garatzeko beharrezkoa den ikerketa zientifiko eta teknikoaren arriskuak eta onurak partekatzen baditu. Kontratu horien esleipenean ziurtatu egin beharko dira, publizitatearen, konkurrentziaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak eta alderdi ekonomikotik abantaila gehien eskaintzen dituen eskaintza hautatzeko printzipioak errespetatutako direla.

2. Aurreko atalean zerrendatutako kontratuak, negozioak eta harreman juridikoak beren arau berezien bidez arautuko dira. Alabaina, lege honen printzipioak aplikatuko dira aurkez daitezkeen zalantzak edo hutsuneak ebazteko.

## II. ERANSKINA

### **13. artikulua. Mugaketa orokorra**

2. Aurreko atalean adierazitakoaz bestalde, honako kontratuak ez dira arautze harmonizatuaren mende egongo, horien balio zenbatetsia edozein izanik ere:

a) Irratidifusioko organismoek irratidifusiorako programak erostea, garatzea, ekoiztea edo batera ekoiztea helburu dutenak, eta irratidifusioko aldiari dagozkionak.

b) Kontratazio-organoak osorik ordaindutako ikerketakoak eta garapenekoak, baldin eta horien emaitzak organo horrek bere jarduerarako soilik erabiltzeko gordetzen ez badira.

c) Europako Erkidegoaren Eratze Itunaren 346. artikuluaaren esparruan barne hartzen direnak, defentsaren sektorean erabakitzen direnak.

d) Sekretuak edo erreserbatuak izendatzen direnak, edo, gauzatu nahi badira, segurtasun-neurri bereziak behar dituztenak, indarrean dagoen legeriaren arabera, edo estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babesteko eskatzen dutenak.

Azken gertaera horren adierazpena, berariaz egin beharko du kasu bakoitzean, kontratazio-organoa, Estatuko Administrazio Orokorraren eremuan, Ministerioko Sailaren titularraren honako erakunde hauekin egiten dituen elkarlanerako hitzarmenak, eta organismo eta entitate hauek elkarren artean egiten dituzten elkarlanerako hitzarmenak —beren izaeragatik lege honen mendeko kontratutzat jotzen direnak izan ezik—: Gizarte Segurantzaren zerbitzu komunak eta entitate kudeatzaileak, unibertsitate publikoak, autonomia-erkidegoak, tokiko entitateak, organismo autonomoak eta gainerako entitate publikoak. Aitorpen hori egiteko eskumena ezingo da ordezkartzan eman, lege batek berariaz baimentzen duenean izan ezik.

e) Kontratazio-organoei telekomunikazio-sare publikoak abian jartzeko edo ustiatzeko aukera ematea helburu nagusi dutenak, edo hiritarrei telekomunikazio-zerbitzu bat edo batzuk hornitzeko aukera ematea helburu dutenak.



**III. ERANSKINA**

MUSIKA HAMABOSTALDIA:		<b>KONTRATAZIO-ESKAERA</b>			
Eskatzailea		Arloa		Data	
<b>KONTRATUAREN XEDEA ETA KONTRATU-MOTA</b>					
<b>BETE BEHARREKO PREMIEN IZAERA ETA ZERTARAKOA</b>					
<b>KONTRATUAREN JUSTIFIKAZIOA ETA EGOKITASUNA</b>					
<b>INTERESEKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK</b>					
<b>GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA</b>					
Arlo eskatzaileko zuzendariaren ikus-onetsia			Arlo ekonomikoko zuzendariaren ikus-onetsia		
Izena		Izena			
Data		Data			